Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Udaberri bi

ARTABURUAREN ZURIKINAK izen ugari badu pentsa artaburu berak zenbat ote duen... Eta artaburuari berari buruz ari naiz, benetakoari buruz, artoaren fruituari buruz, ez ni zeu bezalako artaburuez... Gure berri jakin nahi duenak babalorearen sinonimoekin osatuta hementxe argitaratutakora jo beza (ARGIA, 2.175. zbkia, 2009ko martxoaren 8a). Benetako artaburuak ere izen xelebretik badu, hona polit bi: pikazkarri eta txiloma. Artaburuak geurean izan duen garrantzia dela eta, ehundik gora izen badituela dema egingo nuke. Bilduko al ditugu?

Artaburuak zuztarraren muturrean ihartzen diren sasoi honetan topatu dudan beste xelebrekeria batekin nator gaur. Ilargialdi batean kanpoan ibili naiz, beste hemisferio batean. Udatik udazkenerako joaneko hemengo eguraldia ez dut bizi izan. Bero latzek jo omen dute geurea. Honek aurtengo klimaren itxuragabeko gorabeherak borobildu ditu. Neguan udaberria egin zuen, udaberrian uda, udan euri-jasak eta udazkeneko atarian udamin sargoria. Sasoi bat aurreratua letorkeen gisara igaro da aurtengoa. Horri egozten diot kanpotik etorri eta topatu dudan xelebrekeria. Arreta harrapatu didan bitxikeria loraldia izan da, udaberriko loraldia udazkenean. Sagarrondoak (*Malus x domestica*), udareondoak (*Pyrus communis*), gereziondoak (*Prunus avium*), aranondoak –bertakoak (*Prunus domestica*) eta japoniarrak (*Prunus cerasifera* "Pissardii")–, sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), erramua (*Laurus nobilis*), aligustre edo arbustu japoniarra (*Ligustrum ovalifolium*)... Ezin sinetsita ibili nintzen egunetan. Bati eta besteari galdezka: ze eguraldi arraio izan da bada? Eta denek erantzun bera: beroa!

JAKOBA ERREKONDO

Bero horri bueltaka, kanpotik bueltatuta hemen nintzen lehenengo egunean, urriaren 5ean, Donostian ateratako argazki batek piztu zidan, azkenean, argia. Argazkian ageri den azalea (*Rhododendron sp.*) izan zen kakoa. Udaberriko beroen ondoren, uztaileko euriteek negua ekarri zuten, tenperaturan, hezetasunean eta ilunpean. Gero irailean beroa eta argia. Udaberria etorri zela uste izan zuten landareok. Uste ala egia, zer izan da? Argi dago, horientzat bi udaberriko urtea.

JAKOBA ERREKONDO

Baratzea balkoia

Ez da balkoiko baratzea, baratzea egiteko balkoia baizik. Modan da balkoi eta terrazetan baratzea antolatzea. Sosak aurreratu eta baratzeak hedatzen duen poza eskuera. Tomate, piper, letxuga, perrexil, zerba... Denetik ikusten da. Argazkiko honetan piperminak loreontzietan eta balkoi barruan kalamua. Egutera-eguteran ederki etorritakoak, ez nolanahikoak. Baratzeak hedatzen duen poza era askotakoa izaten baita. Eta sos mordoa aurreratua... Gero eta kalamu gehiago ikusten da balkoietan, nonahi.